

# Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak (7 – Orontze)

KOLDO ARTOLA\*

Honen aurreko saioan Ezkarozeko hizkeraren hainbat adibide argitara eman ostean, oraingo honetan antzeko gauza egiten saituko gara, Orontzen bildu ditugun materialak hona ekarriz.

Adibideok ematen hasi aurretik, jarraiko informatzaileek aditzera emaniko zenbait iritzi agertuko dugu.

1) Pedro Pena Pena (PP), 1902, *Elizagible* etxekoa. Ama oronztarra izan zuen eta aita eaurtarra. Almadiatzan ibilia. 1986an bildua.

2) Severo Azkoiti Arbe (SA), 1903, *Agerre*. Ama oronztarra eta aita otsagiarrá. 1991-95 bitarteko denboran bildua.

## TRATAMENDUARI BURUZKOA

Tratamenduaz, guk ezer aipatu gabe, Pedro Penak bere aitaren ahotan eza-rrí zuen jarraiko esaldia zuketan badago ere, esaldi batek bakarrak aitak era horretako tratamendua ematen ziola ondorioztatzeko aski denik ez zaigu iruditzen, zeren, ikusten ari garen herrietako aita-semeen arteko tratamendu-ohituraren aurkakoa izateaz gainera, esaldia, errimaturik egotean, esaldi ‘egina’ baitirudi; ikus bestela:

PP: Pezárra mokizú, zómat máñia dákizú!... mi padre, me daba cada vergazo!... eskuéla gutti!

\* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografia Mintegikoa.

Esker biziak eman nahi dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntzaile izan dudan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatua.

Inocencia Andueza andere oronztarra eskertu nahi dugu orobat, iragan 2003ko udazkenean azaldu genion zenbait zalantza argitzen lagundu zigulako.

- Guri, euskaraz, ongi xamar ulertzen zigula aditzera emateko, nonbait, zukako tratamendua erabili zuen lehenik:
- PP: Mintzátzen ziá... gárbi uskáraz.  
 Bainak handik gutxira, gauza bera adierazteko, xukakoa:
- PP: Ta xú mintzàtzen xá garbí uskaráz.  
 Tratamendu honek alokutiboa du isla zaraitzueraz, jakina denez:
- PP: Arbaiún edérki-edérki, fán nixu ní.  
 Horiek horrela erabiliagatik, beste uneren batean, zergatik ez dakigula, tokako tratamendua eman zigun:
- PP: Zér ordu dük?  
 Eta alokutiboa erabiltzean ere bai, berdin:
- PP: Eztúk... púnto fíjorik ('nor' kasua, hau)  
 Ez zitzaion, beraz, tratamendu jakin batu lotu gurekiko harremanean.
- Jarraiko lerroetan Severo Azkoitirekin.  
 - *zuk aitamekin xuketan egiten zinuen?*
- SA: Nóla xuketán?  
 - *xu, xu... 'non egon xira xu' eta kola?*
- SA: Ah! xu, xúka, xu... aittátamékin xú...  
 - *aitari errateko... 'non egon xira'?*
- SA: Nón egon xá?... nóndik xín xa?  
 Alokutiboa ere erabili zuen inoiz:
- SA: Bueno, e... o a lo mejor, al padre también le puedes decir: ayér ègo xintxán, fuláno ta zutáno ta... kláro! egó xintxan, kémen.  
 Aditz iragankorrarekin:
- SA: (aitari) Xúk eré bádakizu korí (kasu honetan xukako tratamendua zu-kakoarekin nahasirik agertzen da) / (guri:) Ah! nai dúxu egin bisítá?  
 Eta alokutiboa erabiltzean ere hari beretik, Severok ez baitzuen gura-soekiko harremanetan berorikako tratamendua erabiltzen, Otsagin edota Uztarrozen eta Izaban aditu izan dugun moduan:
- SA: Aitá, apézak ére... bádiakixu kóri / (aitari oraingoan ere:) Ník bádia-kixut kóri... ník bádiakixút o ikási xút, bádiákixút...  
 Inoiz, haatik, berorikako tratamendua erabili zuen gurekiko:
- SA: Ah! amá... amára etsékoa, ta aittára Otsáiko... Botíneneretik; bádakí [orreko edo berorrek], a lo mejor, Botinéa...  
 Zukako tratamendua ere erabili zuen inoiz, halere; hona nominati-boko adibide bat:
- SA: Ah! egó zíre?  
 Alokutiboa tartean dela, honela:
- SA: Arbayúnen presá bát, ba... bai ómen zinuén.  
 Ergatiboa dela-eta, hona adibide bat:
- SA: Bát balímazinuén... étxen...  
 Alokutiboarekin honela:
- SA: Ezút konprénditú óngi.  
 - *eta enetako, eni errateko, nola?* (nominatiboan emango du hasieran)
- SA: Ìretakó? i, non, nón egó iz?... o èdo, nóndik xí yiz?  
 Alokutiboarekin ere berdin:
- SA: Ní élbitzen nük ánitz bárrio kóntarik / xín tuk aráñak (= *enarak*)  
 Eta ergatiboa erabiliz –kasu honetan, toketan–, honela:

- SA: Abér, zómat [urte] pentsátzen dúk... izán nozke?  
 Alokutiboarekin ere ohiko ildotik:
- SA: Kórrek badík díru ánitz; díru askó o díru ánitz.  
 Arrebekin hiketan –noketan, jakina– egiten zuen; hona adibide bat horren lekuko:
- SA: Ayér ègo itué ire adixkídiak; égon, ègon yittué.  
 Aditz iragankorrarekin honela:
- SA: Ík eré bádakín, korí.  
 Eta alokutiboarekin ere hari beretik:
- SA: Ník bádiakinát... ník bádiakinat korí.  
 Gure arteko elkarrizketan, ia beti, zukako tratamendua erabili zuen:
- SA: Urrául Goráko, Urrául Alto; bádakizú nun dáon?  
 Tratamendu hau emanagatik ere, ez zuen, ohiki, alokutiboa erabili:
- SA: Bída-írur urtérez egón niz ni / àitzen nuén axkí... askí óngi.

### EUSKARAREN EGOERARI BURUZKOA

- PP: Badúla, dènbora ánitz, eztá ébili já inóla, mintzátzen uskáraz.
- PP: Eztá mintzátzen bátrere uskéra zérbait; diús e! t'ez ítz bat ere [Orontzen], bátre.
- PP: Eztút sós bat bálio ta, uskéraz e, sos bát eztú'bálio.
- SA: Guk, áit(t)eak... aittétamék eta... t'arrébek, euskára, guziék éuskara xardókitzen ginguén, egínuen xardokítzen berzérik, bàizik euskára, órdöan.  
 - *orain euskaldun guti dago Orontzen?*
- SA: Eeeh... gútxi! báia káu uskárará... eztá uskára... déna ére! jca!  
 - *ez erran kori; uskara ona da, aberatsa...*
- SA: Ah! gú baigintzán, aitetamák eta yá semekín, guziá... guziá uskára xardókitzen ginguén, erdára bátre; guziá... eúxkara, guziá. Aaah! ya... átzentzen da eré aánitz, atzentzen da ére yá ánitz; ya, zómat? berrogèita... zómai'urté, pues ez tala (= dutala) xárdokitzén euskára...  
 - *noiz utzi zen?*
- SA: Ah! noiz eútzi? ooh! ya... yá berrógei urté oro (=edo) ... gut(t)íenia dá, ta berrogéi urté pues yá... gú guziák yá kasátu gitzán! bai; geróztik pues, emaztéarekin, ezpáitzakien... uxkára, énuen e txárdokitzén bátre niòrekí<sup>1</sup>, géro kán (Orontzen, alegia, bere herritik kanpo kontatu baitzuen hau) zómaitekin bái baia gúttirekín.  
 - *nongoa zen emaztea?*
- SA: Nóngoa? Urrául... Urrául Goráko, Urrául Alto; bádakizú nun dáon?  
 - *bai; nola erraten da, Urraul Gora edo Urraulgoiti?*
- SA: Klaró! uxkára Urrál... Úrralgoiti, erdára Úrral... Altó; kángöa ze.  
 Beste aldi batean, halere, horren ordez, Pardixerri izena erabili zuen
- SA: Nongúa? or, Pardíxa... Pardíxerría, Élkuátxeko; bádakik non dáo(n)  
 Élkötatx?  
 - *bai... Pardixerria; orduan ez zuen uskararik xakinen...*

<sup>1</sup> Bitxi da sudurkaria ezkerretara iragan izana, zaraitzueraz ohiki, are hitzaren erdian ere, agertzen ez denean, ‘ior’ edota ‘iyor’ aditzen baita arrunki. Laguntzazko -ki atzizkia ere, bestalde, Erronkariko auzo ibarrean guztiz arrunta zena, ez da Zaraitzun salbuespenez baizik agertzen.

- SA: Orrékin euskárarik eztá.  
     - *orduan urte anitz du ez duzula iorekin xardokitzen...*
- SA: Oooh... urté<sup>2</sup> anítz! ta... érrian pues zómaitek bádakí baia, eeeh! gúti xardókitzen dugú, éz e, bátre! Pues ílez geróztik, edo elkíz geróztik arrébak etxerík... pues azkén àrrebará... nójiz? nójiz élki zen? ogéita... ògeitámar urté edo kalá... ordúarlártio pues... uskára, uskára karekin.  
     - *eta arrebara xiten bazaizu orai bisita egitera, uskaraz xardokitzen duzie?*
- SA: Bah! éez anitz!  
     - *ez? galdu duzie kostunbrea?*
- SA: Bai... gálduz.  
     - *baia arrebak ongi daki oraino, ez dea?*
- SA: Bai; ah! bëia éni ere a lo mejor... nònbre ánitz, ya... yá átze zaida; nòla ezpáitut xardokítzen! eta... géro, sórr ere bái niok... àski sör, ezpárimadá oyúz pues e... éztut aitzén! amigo, urté anítz... artú dut, t'iágó, urte ánitz báitu(t).

#### INGURUKO MINTZAMOLDEAK DIRELA ETA

- SA: Otságirik, tal como Orontzerañó, aníz gauzatán bazén diferéncia.  
     - *bai, e? zertan?*
- SA: Zértan? gúk 'káxöa', eta Otságin 'xartágia'; sarténarendáko, euskáraz, gúk káxöa, ta Otságin... xartágia.  
     - *eta 'luna'rendako?*
- SA: Ilargiá...  
     - *eta Otsagin?*
- SA: Ah! Otságin ere bái.  
     - *'ilaskia', ilaskia Otsagin<sup>3</sup>...*
- SA: Iláxkia? aaah! bueno, enákien... nóla... déitzen ze.
- SA: Espárza... kan, baitagó, gauzá bat... kán erráten dié... etxòkitzekó, 'irúki za[k]' ta Oróntzen erráten dúgu 'etxóki za[k]', 'toma, ten eso', nosotros, etxóki zak, en vasco; Espárzan, idúki zak.

#### ADIZKIAK TARTEKATURIKO ESALDI-ZERRENDA

Saio hauetako ziorik nagusiena ditugun materialetatik ateratako esaldiak eskaintza izaki, jarraiko lerroetan hala grabatu zintetatik nola eskuz bildu apunteetatik ahalik esaldi gehien hona ekartzen saiatu gara. Horretarako, eta orain arteko saioetan egin dugun bezala, esaldioi zenbaki bana eman diegu –lehenagoko saioetan emanikoa bera, hain zuzen– era honetan oraingo hauek haietan ageri zirenekin parekatu ahal izan daitezen. Hona, bada, esaldiok:

<sup>2</sup> 'uzte' aditzen ote den gaude.

<sup>3</sup> Otsagiartzat jo izan den hitz hau 2001ean bildu genion hurrengo urtean zenduko zen Teófilo Eseberri jaunari, zeina herri horrexetan, aspaldi, informatzaile aparta izan genuen Liboria Contin andrearen seme izan baitzen. Litekeena ote da, zaraitzueraz hain ohikoa den errortazismoaren ondorio, 'ilargi → ilarsgi → ilasgi → ilaski' gisako balizko garapenaren bat jasan izana?

<u>adizki-zk.</u>	<u>adibideak</u>
1-01	<p>PP: érrékan izán níz... írur edo láur aldíz, almádien péan            SA: bída-írur urtérez egón niz ni, Árgiloán<sup>4</sup> ere            SA: ez, ní eníz, ní ez élbi... almádieten, ez  <i>(elbi honetan metatesia dugu antza, ‘ebili → ebli → elbi’ gisako garapenaren bidez)</i>            SA: uái... éri egon bainíz zòmait egúnez...            SA: làurogèita bederátzi... ezpániz iltzén...            SA: órai, erràtekó, erràtekó élrebí nizála  <i>(elrebí; hona gorexeago aipatu ‘ebili, ebli, elbi’ direlakoen beste aldaera)</i>            PP: badú urté, enitzála izán, kórtan é</p>
1-02	<p>SA: faten nük, orái, Eská(r)oyeráñot... Ezkàrozeráño / ní xíten nük orái bérion, xíten nük Otságirik / ni élbitzen nük ánitx bárrio kóntarik  <i>(hiru esaldi hauek guk berariaz eginiko galderi eman erantzunak dira, ‘fan’, ‘xin’ eta ‘ebili’ aditzak era trinkoan erabiltzen ote zituen jakiteko, ezezko emaitzarekin; hots, ez ‘noa’ –edo ‘nae’–, ez ‘nator’, ez-eta ‘nabil’ gisako erak ez zituen inola ere erabiltzen<sup>5</sup>)</i>            SA: (<i>eta ‘eldu nuk?’</i>) también; órai xíten nük o... orái èldu nük Otságirik  <i>(esaldi honen bukaeran dugun esamoldea, gutxi-gorabehera Errenerteria-Oiartzun ingurutik ekiaderanzko norabidean ‘nator’ esanahiarekin erabili ohi dena, eman zuen halaber Severok guk zirkaturik, baina ‘xiten nuk’ delakoa da, ezbairik gabe, erarik hedatuena Zaraitzun<sup>6</sup>)</i></p>
1-04 b	<p>PP: Arbaiún edérki-edérki, fán nixu ní            SA: xín nixú</p>
1-05 a	<p>PP: mintzátzen ziá... gárbi uskáraz            SA: ah! egó zíre?            SA: ah... lénagó ègon tzéra, elízan  <i>(hiru era desberdin dugu hemen, bat edo beste Zaraitzun oso ohiko ez bada ere<sup>7</sup>)</i></p>
1-05 b	<p>PP: ta xú mintzátzen xá garbí uskaráz</p>

<sup>4</sup> 2003an euskararen ezagutza apala duen Inocencia Andueza andere atsegina galdekatu genuen honen aurreko saioan eztabaigarritzat jo genuen ‘Argiloa/Argiloain’ izenari buruz. Inocenciak “aquí, todo el mundo, Argiloa”, esan zigun.

<sup>5</sup> ‘Egon’ aditza bai, ordea, honako esaldia bota baitzuen gure informatzaileak: *ni, kemen niók eséririk... eséririk edo ttónntorik*, horren ondoren sail osoa bildu geniola tratamenduak aldatu baitzuen ere: *kónten niók, eséririk bainago / kónten xaudiá? eséririk baitxáude? / kónten dióxu, eséririk baitágo / kónten giaudék, eséririk baigáude / kónten zaudié, eséririk báizaudié / kónten diaudék, eséririk baitaudé.*

<sup>6</sup> Zaraitzun inoiz bildu ditugun datuetan honako hauek aurki daitezke: *xiten dun* Eaurtan; eta *xiten da* Otsagin (hau Rafael Iribarren adiskideak EAELerako bildua), Ezkarozan eta Espartzan. Erronkariko ibarrean ere gauza bera, *xitan dun* baitzuten, Zuberoan, beste era batera, *horra dün* baldin batute ere.

<sup>7</sup> Orontzeko dotrinan, baina, zuketan bada ere, *norequi minzazenzra?* irakur daiteke.

- (esaldi bata ia bestearen ondotik, lehenik zuketan –ikus 1-05-a zk.ko esaldia– eta orain xuketan, bota zigun Pedrok, saio honen hasieran esan dugun bezala)
- 1-06  
 SA: nón egon xá? / nóndik xín xa?  
 IA: áita, nón egon xade?  
 (salbuespena bada ere, gogotik hartu eta leku ematen diogu Inocencia andreak emandako lagin honi, ohiko bi informatzaileek eman erarekiko, gainera, aldaera suposatzen duena; *xade* hau, de-na den, Espartzan ere bildurik gaude, ‘xá’rekin batera)
- 1-06  
 SA: nón egó iz? / nóndik xí yiz?  
 IA: nóra fáte iz?  
 (aldi honetan ere badugu Inocenciac eginiko galdera hau hona ekarri ahal izateko zoria)
- 1-07  
 PP: nola déatzen da?  
 SA: nola deitzen da? eztákit nola déitzen den, uxkáraz  
 (azken bi esaldiotan Pedrok *deatzen* erabili zuen eta Severok *dei-tzen*; honek, baina, era hora ere erabili zuen inoiz)  
 PP: orái, axki'a, atzítzen dá  
 (azken bi esaldietan *uxkáraz* eta *axki'* moduko ahoskerak aditu us-te ditugu; ez dira salbuespenak ordea, s-a maiz aurkitu baitugu *x* bihurturik edo erdi bihurturik Severoren hizketaldietan zehar, askotan bi soinu horien arteko zerbaite iruditu zaigula; bata edo bes-tea zein idatzi erabakitzerakoan, aldian aldiko gehien iruditu zai-gunaren aldeko hautua egin dugu)
- SA: ya... átzentzen da eré aánitz, atzétzen da ére yá ánitz  
 (Pedrok, honen aurreko esaldian, *atzítzen* erabili zuen; Severok, azken honetan, *atzétzen*)  
 PP: ói, errí oitán? dénetan báda errota  
 SA: bai, diferéntzia báda, ánitz  
 PP: eztá mintzátzen bátrere uskéra zérbaite; diús e! t'ez ítz bat ere  
 SA: geró, Sàstrearéna, eta eztá yágó... etxèrik kán  
 (etxe baten izena da *Sastrearena*)  
 PP: gùzien Jáuna sòrtu báita...  
 (Eguberriko kantu ezagun baterik aterata)  
 SA: kandík igàrtzen baitá pistá bat  
 PP: zéen, ezpáita úra se(g)úro  
 PP: báda dénb(o)ra bát... ezpéita séntitzen, eztá sentitzén, ótza... bátre!  
 SA: ezpárimadá oiúz pues...  
 SA: Legárre... uskálduna eré diá? Elizagiblé bai!  
 (etxe biren izenak dira hauek ere)  
 SA: bàdakúzi zér den baratxúri?  
 (*badakuzi* bitxi honetan metatesia dugu, antza)  
 SA: eztákit nola déitren den / [eztakit] nónbrea kòri dénez!  
 PP: Ègubérri, Ègubérri, gáur dela Èguberriá  
 (lehenxeago aipatu kantutik aterata)  
 1-08  
 PP: eztúk... púnто fíjorik  
 1-12  
 SA: zomát? láur arréba, ta... ànae bát, borz, eta ní sei; ya... yá bagitúk illík, bizí gintúk (sic), bi... bí arréba ta ní, írur; berzíak ya... berzíak yá illík... dáude  
 (esaldian zehar tokako tratamendua nagusi bada ere, azken aditza indefinituan dugu)

- 1-15 PP: orái, nóna bizi zizté? norekin?  
 (adizki hau Zaraitzutik kango ikasia ote? Nafarroa Beherean, bai,  
 guztiz arrunta baita)
- 1-16 PP: atadéroak deàtzen díra  
 PP: olá, oláxé dia, lodítarzúna, lodía  
 PP: badíra... korréoák, fíjo, fíjo; góizian artú eta... ah! ar-  
 tséalarteo  
 PP: bàya... èztirá (...) úrak  
 SA: órai ere bái, déitzen báitia bórda  
 PP: eta, zúrak lódi direlarík...  
 (hona Orontzen ere laburbildu gabeko erak, gehienak Pedrori zor  
 baldin bazaizkio ere)  
 PP: ya... erríen nónbreak... átzetzén dra!  
 SA: murzièlagöák? iluntxorri; oyék, elkítzen drá (...) yá ilún-  
 tzen zuelárik...  
 SA: Elizàgible bai... Iriárte, uskaldunak drá uék ere bái?  
 (Iriarte ere beste exxe baten izena da)  
 SA: a lo mejor, diferénteak báitra maripósak, káu katalína,  
 káu maripóxa  
 SA: aráñia elbíltzen drén kóyek... aráñara<sup>8</sup>  
 (guk bultzaturik *allamórma* eman zuen ondoren –gazt. ‘araña’, ale-  
 gía–)
- 1-17 SA: xín tuk aráñak (= enarak)
- 1-20 SA: írur kilómetrotan, sáunsi nintzán, igánde bátez  
 SA: gázte nintzálarík xáten, xan nokián guziétarik
- 1-26 PP: aitá... èaurtárra zén, èaurtárra  
 PP: aitá, askí gazterí il zén / érne ebiltzen zén  
 PP: agótza? mändre bat zén, sabanadas... en la pieza  
 (mandre batzen aditzen da, hots ‘maindire bat zen’, azken bi hitz  
 hauen arteko bateratzea ohikoa ez izan arren, Pedro honexek ba-  
 lizko sandhi-kasuak sor litezkeen honen aurreko bi esaldietan age-  
 rian ezarri bezala)
- SA: bizpúr urtéren búruan, ustéltzen zén kúra  
 PP: yéndiak ikús zán, ikús zan... nóna trabájatzen zén alma-  
 diára  
 SA: geró, barátzen zén... karén... guziekín? ordúan egíten  
 zién agúardiente  
 PP: bazén... gizóna, ezpéitzen... élkitzén, láur edo... bórz  
 égunez  
 SA: autóbús bat bazén, koná igáteko; autobús... txikin bát  
 PP: etzén ez, e? etzén módonik, etzén modónik  
 (esaldi errepikatu honetan sandhiak ongi gauzatu zituen Pedrok;  
 hurrengoan, erdizka-edo baizik ez)
- PP: gero, e(t)zén almadiáztzen nái zuelarik bátek, éz-ez  
 SA: aaah! pues étzen igaretzén, etzén igaretzén gosérík éz  
 SA: bàia... e(t)zén ellegratzen txorízotáko

<sup>8</sup> Eaurtan *añamórma* eta *allamórma*; Espartzan *allamárma* (EAEL-I, 102); eta Ezkarozent, *alla-  
 mórmá* bildurik gaude. Mitxelenaren *Un vocabulario...* delakoan –zaraitzueraz, baina zein herritan  
 bildu zen zehaztu gabe–, *añaborma*.

- SA: dénb(o)ra gaitán káfe... káfe deséienatzéko... ezén elle-gatzén  
 (Severok eman azken hiru esaldi hauetan ere koherentzia handirik gabeko joera somatzen da balizko sandhiak gauzatzerakoan)
- SA: txokólate... bálin bázen, píxka batekín... te halá! / mé balimazén, púntero bát eta kóderoa [almadian]
- SA: ta géro kándik, berzé ballé bat añáditzen báitzen bérzea-rí? pues bí, bí persóna ere, kan? ta Záragozaráñot edo kái-trá... Tudelára, Zàragozára, hálá! sáltrza almádien...  
 (komunztadurak eza dugu esaldi honen hasieran, zaraitzueraren esparruan hainbatetan agertzen dena. Severok, bestalde, oraingo-an Zaragozarañot ahoskatutik ere, geroagoko une batean Zaragoza-raltio eman zuen, zaraitzuerazko muga-adlatiboaren joera nagusia ezaguturik ‘Zaragozarartio’ itxaron behar zela uste dugun arren; izan ere, Severok, beste uneren batzuetan, *Irunberriñaño* eta *Xarze-raño* herri-izen deklinatuetan azaltzen den -raño aldaera erabili baitzuen, zihurgabetasun handia erakutsiz)
- SA: nóla... dénb(o)ra káitan, báizén... erróta, èrri guzié-tan...
- PP: altzínëan, yoàten zenák (...) tenía toda la culpa
- SA: éne abuélo zèna zén, kan, Zerréngano... Zerrénganorik, bai (...) Jòse Miguél, déitzen ze; nìk eztakít... Apàleköá edo Goráköá zén
- SA: orái... anáia yá il tzé ya... gú garrárain gáreon gáriaren beriála  
 (Orontzeko edo inguruko esamolde bereziren bat ote hori? ez dakinigu, egia esan, zer den)
- PP: ez... etzéna elkítzen
- SA: órduan, fèsta guziáik, dénbrara... gàxto zéla
- PP: báizik, úra... èrrékara... prestátzen zélarik ándi
- SA: ta géro yá, árgia, exéri zelárik...
- PP: errékan, nönáiden baràtzen zé...!
- SA: kángöa ze
- SA: enákiem... nóla... déitzen ze
- SA: pues, zúr-móntio bát... báize  
 (Aezkoatiko eragina dugu, antza, azken lau adibideotan, azken-hurrena, gainera, neurritik kanpokoa iruditzen zaigula)
- 1-29 a SA: Arbayúnen presá bát, ba... bai ómen zinuén
- SA: áuto bí... Sàlacéncako autó... bí autobus bazinuén, ruéda mazízarekin
- 1-29 b SA: yá prestátien xíñue, uáldëa... andítzen zelári? (sic) ordú-an almadiáztra  
 ('xinuen' da hori –‘zen’ eraren xukako alokutiboa, alegia–, zertxo-bait desitxuraturik)
- 1-30 SA: láur arréba ta bí anáë, izán gintzan
- SA: pues yá... gú guziáik yá kasátu gitzán
- SA: géro yá, yá idíak e... géndu gitzan béiez  
 (kasu honetan gatz. ‘nos quitamos, nos deshicimos de las vacas’ edo antzeko zerbait dugula uste dugu, hots, ‘quitamos las vacas’ zentzu erreflexibo batez)
- SA: úrte bátez fan gintzián, úrte bátez edo bí urtéz fan gin-tzán, kára, Argiloara, juán gintza

- (adizki laguntzailea dela eta, esaldi honetan hiru aldaera eman zi-tuen Severok)
- PP: yà bagintzán... laur, borz; por lo regular... íbamos cinco en los ataderos
- SA: gú baigintzán, aítétamák eta yá semekín, guziá... guziá uskára
- SA: artzéko... gáuza gúttiak, gútxikin gintzalarík orduán yá...
- 1-35 SA: bai, ya... ya fáten zirén yá (...) kùmendík... kebendí ya egun bátez, Isóra... Isóra, kán gab’ítra; kan gab’ín, ta... kan ártzen zirén... xatéko, bìramonéko, ta hálal! Arbáyu-neko fozeán, igáretzen zíren...
- (‘gau egitera’ eta ‘gau egin’ ditugu hor, pasarte luzexka honen barruan tartekaturik)
- SA: almádia bakotxán, xégun, láur, láur edo bórz, borz trámoo... exèrtzen zirién ta hálal!
- PP: dénak yoáten zién... násirik
- SA: bi almádiak esértzen zireán bátian; kaékin pues jénde guttágorekin
- SA: festák orái ìzan zéren...
- SA: ah! ropérök? bigárren trámuán fatén zire
- SA: mé bálin bazién [zurak] ógei ere bái
- (orain arteko esaldietan agerí diren laburtu gabeko erek aldaera ugari darakuste)
- PP: óiek, érri oyék, dénak zréen almadiéro
- SA: zúrak lotzén zren; badakízu nólala... lotzén zren?
- SA: kláro, zúrak... mé balimázren; orái, zúrak lódi bálimázren...
- SA: anítz etxétan yá txérriak iltzen báitzren...
- SA: yá kándik arránkatzen zrelarík, yá xaunstén zirén... Arbàiunéra
- 1-36/37 SA: (*anaiari errateko, nola?*) átzo ègo ittuén, ené adixkidiák / átzo... ègo it(t)uén ire adixkidiák kémen
- SA: (*eta arrebari?*) ah, pues por el estilo: ayér ègo itué ire adixkidiak, edo nére adixkidiák... égon, ègon yittué / egón yittuén / ègo ituén
- (kasu honetan tokarako eta nokarako erantzun bera izanik ere, adizkiak zenbait aldaera aurkezten du: *y-* protesiduna zein gabea, *t* leherkaria busti zein bustigabea, eta bukaerako *n*-aren inoizko zaintza)
- 1-38 b SA: ayér ègo xintxán (...) egó xintxan, kemen<sup>9</sup>

<sup>9</sup> Orontzeko dotrinan, zuketan bada ere, ‘zintzan’ bat agertzen da, honela irakur baitaiteke: *corrèngatic convenientuzinhan irur persona divinoac Semeac pagazezan becatu cura.*

Aditz laguntzaile iragangaitza (*nor-nori*):

2-01 → 2-20, orainaldiko singul.; 2-21 → 2-40, iraganaldiko singul.

adizki-zk.

adibideak

- |        |  |
|--------|--|
| 2-01   | SA: bèia éni ere a lo mejor... nònbre ánitz, ya... yá átze zaida   |
|        | SA: bàea ezái... ezáida ére óngi-ongi [elkitzen], e?   |
| 2-08   | SA: anítzi ez záio gustátzen baia, baia gúri bai   |
|        | SA: kóri... da... góxo anix da, gustátzen zaiolári, e?<br>( <i>zaiolari</i> horretan zertzen den menderagailua horrela aurkituko dugu inoiz, azken <i>k</i> galdu)                           |
| 2-12   | SA: órai zélebràtzen dá, kan, idúritzen zaikúlarik   |
| 2-45 a | IA: bortuan elurrari diozu, zanguak ozten zaizkitzu<br>(Ino Anduezak eguberritako kopla batzuk kantatzean eman zuen bertso-lerro pare hau hona ekartzea egokia iruditu zaigu <sup>10</sup> ) |

3) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork*):

3-01 → 3-40: *nor*, singul. 3. persona; 3-41 → 3-80: *nor*, plur. 3. persona

adizki-zk.

adibideak

- |      |   |
|------|---|
| 3-01 | PP: bai, bai, bai...konprénitzen dut, bai   |
|      | SA: ník Irúñan (...) ikúsi dut, káitarik también  |
|      | PP: badút zerbait, kóntatzekó ongí  |
|      | PP: eztút sós bat bálio ta, uskératz e, sos bát eztú'bálio  |
|      | SA: ez, eztút aítu nik korí   |
|      | SA: urte ánitz báitu(t)   |
|      | SA: nòla ezpáitut xardokítzen!<br>( <i>nola</i> hitza maiz aurkitzen dugu galderarik ez dagoen leku; kasu honetan, esaterako, 'xardokitzen ez dudanez' edo antzeko esaldia irudikatzeko erabili zen, gure ustez)  |
|      | PP: ògei urté iñen dú... eztútela almádiatu<br>(ez bide zuen ongi kalkulatu iragana Pedrok hau esatean, urte gehiagoko koxka izango baitzen, ziur aski, zehaztu beharreko; horretaz landara, 'eztutala' itxaron beharko zen, agian, adizkia osorik eman zuela kontuan hartuz)   |
|      | PP: semenzéro errán tan korí  |
|      | SA: ya, zómat? berrogèita... zómai'urté, pues ez tálá xárdo-kitzén euskára<br>(azken bi esaldietako era laburtuak, oroitarazten dugu, 'erran dutan' eta 'ez dutala' izatera datoz)  |
| 3-02 | SA: ník èutzi diát libúrrua mayáren gáñan   |
|      | SA: orái eràgui diát sagár kau<br>(iragangaitzaren kasuan ere zertu bezala, 'eragui' horrek (= ekarri) era trinkorik sorrazten ote duen jakiteko geuk egin galderari emaniko ezezko erantzuna da esaldi hau, ez omen baita balizko 'nik daraguit / deraguit...' edo antzekorik erabiltzen, 'orai' batekin aditzera ematen baitute ekintza burutzen deneko unea) |

<sup>10</sup> Espartzan, kantu honexen barruan, *zauzkizu* bildu genion Nicolás Elarreri, eta Jacinto Ramírez, xuketan, *zaizkixu*. Eaurtan eta Otsagin, xuketan ere, *zaizkitxu*.

- SA: orái ermàten diát sagárra o... itzultzen diát, devolver otra vez...  
 (kasu berean gaude, ‘erman’ horrek ez baitu adizki trinkorik sorra-razten)
- 3-04 a SA: ník badiát díru  
 SA: ezút konprénditú óngi<sup>11</sup>  
 (esaldi hau zuketan emanik ere, hurrengoan xuka erabili zuen Se-verok)
- 3-04 b SA: ník bádiakixút o ikási xút
- 3-05 a PP: tèstinbáo!... kór duzu: urrútxa, biúrtu edérki... úrrux, ta géro...  
 PP: eta urá... òrduán, amárratzen duzún... sógaz  
 PP: kór tuzu ropéroa!  
 (pluraleko adizkia erabili zuen kasu honetan Pedrok, ‘duzu’ erabi-li beharrean)  
 PP: oái, denbóra ortan, bàr tutzú, érne ebílli!  
 (honen aurreko esaldiari egin iruzkinak balio du honetarako ere, eta arrazoi gehiagorekin behar bada; esaldia, agian, 1-19-a zk.ra eraman liteke, ‘dira’ adizkiaren zukako alokutibo gisa, baina Pe-drok gurekin tratamendu hau erabili ez zuenez hemen kokatzea erabaki dugu, geure zalantza agerturik ere)
- 3-05 b SA: ah! nai díxu egin bisítا?  
 PP: óri-óri aixa, egíteixu  
 (‘egiten duxu’ dugu hemen; Javiera Urralburu eaurtarrak ere era honetako laburpenak egiten zituela oroitarazten dugu<sup>12</sup>)
- 3-06 PP: zér ordu dük?  
 SA: izáutzen dük?
- 3-08 SA: abér, zómat [urte] pentsázen dük... izán nozke?<sup>13</sup>  
 PP: ògei urté iñen dú  
 SA: ogéi urté izáen du  
 (antzekotasun handiko azken bi esaldi hauetan, azentuaren porta-era zinez desberdina da)
- SA: teléfono bádu, baia eztákit zér teléfono duen  
 PP: badúla, dènbora ánitz, eztá ébili já inóla, mintzátzen us-káraz  
 SA: úrte, ùrte ánitz badúla, e... uxkáldun bát ere bái, èldu zén  
 PP: éztu difikultáderík, bëár da... exkúla pixkát  
 (exkula –agian ‘exkura’ – hori ‘eskola’ da, antza denez)
- SA: orái duéla... ógei égun  
 SA: ta gátzak... ártzen duelàrik óngi
- 3-09 SA: kórrek badík díru ánitz; díru askó o díru ánitz... díru badík axkí ere
- 3-12 PP: àtzemanen dígu, àtzemanén, güzien Jáuna...  
 SA: erdènen dígu erdenén, güzien Jáuna Belenén...  
 (bi bertso-lerro hauetako lehenago aipatu kantutik aterata daude, Pedrok eta Severok aditz bera erabili ez bazuten ere)

<sup>11</sup> Adizki osoa dakusagu Orontzeko dotrinan: *corregatic otoi eguitendizut Ama Virginari*, perpau-sa honek era tripartsonala behar bazuen ere, ‘diakozut’ bat, antza.

<sup>12</sup> Zehazki xúk eré eiteixú xú, alde batetik, eta ta zér artzeixú, zínta?, bestetik, bildu genion aipatu andreari ‘(2 – Eaurta: jarrai-pena)’ azpitituluko geure saioan.

<sup>13</sup> L.-L. Bonaparteren *Études... lanean ere, Potentiel, conditionnel* gisa, ‘nozke’ hau bera dugu.

- SA: gútxi erègitten dugú; gük guorenakó, na-... déus yago-korík  
 SA: Uskártze errán dugú, eztúgu errán?<sup>14</sup>  
 PP: gùzien Jáuna sòrtu báita, dugunáren legriá  
 SA: gùzien Jáuna sòrtu éta, dugunáren legriá  
     (bestetso-lerro pare hauek ere, lehenago aipatu kantutik ateratakoak, errexitaturik eta azentuera berbera erabiliz eman zituzten biek; azken hitza dela-eta, bestalde, Espartzan ‘alegriara’ eman ziguten)  
 PP: öráiko... öráiko eztúgu... diús e balío, dénbra áitako...  
     lánetak  
     (azken hitza ez da ongi aditzen; ez da, beraz, segurua)  
 PP: bádaude, zòmait urté, eztúgula almadiatzén...  
 3-17     SA: kor dié urrían (...), zortzígarren egunian, kór eztié kan-biatzen  
 PP: bëar duté érne ebíl(l)i  
 PP: ta beár dûte... bì arrí  
     (Orontzen ere adi daiteke lehenagoko saioetan aipatutako *u* eta *i* bokalen arteko ahoskera –*ü* baten bidez irudikatzen duguna–, behin baino gehiagotan gainera)  
 PP: oi! bai, bádute lának... rémoek  
     (‘dute’ adizkia, oro har ‘die’rekiko erkaketan gutxiengoan egonik ere, Zaraitzu aldean aski erabili dela frogatzen dute Pedro Penak eman azken hiru adibideok; informatzaile honek ez zuen, gainera, ‘die’ erabili, Severoren ohituratik guztiz bestela)  
 3-21     PP: nik, eützi nuén, bah! ògei urté iñen dû...  
 SA: lén, [begarri] ontáz, àitzen nuén axkí... askí óngi  
 SA: énuen eín kásorik / ník enuén izáundu korí  
 SA: len, Lédian, ník bainuén tío bát, Èsparzákoa...  
 3-24 b     SA: ikási nixún edo badiakixút  
 3-25 a     SA: bát balímazinuén... étxen<sup>15</sup>  
 3-28     PP: egítatú ta, beár zuen... írur-láur egún... idórtzeko  
    SA: aldí batián [amak] libràtu zuén, bidárekin (bi haurrekin, alegia)  
     (ezustea izan da guretzat aditz iragankorra erabiliz osaturiko esaldi hau, pertsonak tartearen direla ‘libratu zen’ aditu baitugu beti, eta are gehiago lehenago aipatu eguberritako kantu baten barruan informatzaile honek berak *izarr ártan señalé / erdi dèla Mariá* moduko bertso-lerro parea eman zuela ikusirik)  
 SA: abér nórk págatzen zuen  
 PP: Muxkíldak... bazuén, atadéroak deàtzen díra  
 SA: etzuén tabernárik órduan  
 SA: ezuénak xérria íl pues artxárki ere bái, bìramonéko  
 SA: ezpalímazuén rëbajátzen... úra, almadía etzén, etzréni sártron, e?  
 PP: géro, e(t)zén almadiátzen nái zuelarik bátek, éz-ez

<sup>14</sup> Orontzeko dotrinan eta adizki honekin, -a erantsitako era ikus daiteke galdera egitean: *eta orduan beardugua guziec resucitatu?*

<sup>15</sup> Orontzeko dotrinan *icusi zunena Jesucristo sorzren* (sic)? irakur daiteke. Oroitarazten dugu Espartzan, xuketan bada ere, ‘zunen’ hauxe bildu dugula eta, Orontze honetan, ‘guk’ kasurako, ‘gunen’, hau ‘ginuen’ ohiko erarekin batera bada ere, honexen aldaera gisa, antza.

- 3-32
- SA: ah, murzièlagöák iluntxóri; oyék, elkítzen drá... elkítzen  
zrén, já ilúntzen zuelárik, hál!  
 SA: xárdoki ginguén, mittxíka bát...  
 (guk galdeturik, ógi puzká bat, ógi pixká bat eta ógi mittika bát, hirurak antzekoak direla esan zuen Severok, bai-eta gúttu bát gatz. ‘un poquico’ dela ere; azken kasu honetan asimilazioa egon liteke agian, balizko ‘gutti’ batetik abiatuz gero bederen)
- SA: eta géro, berróxko erráten ginguén koitán ere bái  
 PP: áitamatén etxeán, guk báginiuen... semenzéro oná  
 SA: gúk baginuén... trájia, báia (...) bide gáxto ermán du  
 SA: ah! baginué erróta, errían, bai... báginiue; baiá ya fastídiatrik dagó!  
 SA: bueno, ídi ére bàginuenék, gú(k) baginuén ïdi-pare bát  
 SA: ez gínuen lo egíten / egínuen xardokítzen berzérík  
 SA: sardína górrí kaitárik, ‘carabinero’ déitzen báigínuen  
 SA: ta... gúk xardòki ginguéna, kán ere... ére zegon  
 SA: ta lán egíten gínuénak gúti prodúzitzen  
 SA: éztakit, (...) xáten gínuénez koitárik  
 SA: ta géro... gínuclarík, ezné zegolarík...  
 SA: negúrtuz, e? (...) negúrtzen gínduen, bai  
 SA: ez gínuen lo egíten!  
 SA: xatén gíñun ánitz!  
 SA: kan, kán egíten gínuen  
 (azken lau adibideek ‘gínuen’ era zabalduenaren aldaera desberdinak agertzen dituzte)
- SA: artxérki (sic) ebíltzen baigúnen, hálal! puzká bat, puzká bat... kaítaz  
 (gunen hau kontuan hartzeko modukoa dela iruditzen zaigu, gínuen ezagunaren aldaera gisa, lehenagoko orrieko ohar batean adierazi bezala)
- 3-36
- SA: míra, xardòki ziniéna kor (...) eeh! nón daukíe ya?  
 ¡bien!  
 (daukie hori ‘daukate’ da, ‘iduki/iruki’ edo Orontzeko ‘etxoki’ aditzetiko era trinkoa)
- 3-37
- SA: geró e... libúru’at eskribitu zién, káek  
 (liburu uat aditzen dela iruditzen zaigu)  
 SA: kemén, ostáliala, egòrrí omen zién líb(u)ru bat  
 SA: ardúa egín ondorián... bináda, egít(t)en zie  
 SA: abér Ibitzákuek edo... Sartzékuek págatzen zién ólio  
 PP: oi, autóbusa! bátzien, érri guziék, korréo  
 SA: báya... geró án sartzéko Àrbayunén? bazién mugá bat  
 PP: [aitamatamak guzialen ziren?] dius ére! deúx ere! eta biék, biék... langíle gáitzak eta, etzíen, xobrá-sobrá bízio nái ez, béti lanián azkárki! azkárki eta...  
 SA: kán etzién déus ere  
 SA: Oróntzeko batzúk baitzíen zúr...  
 SA: geró kóri ezéitteken... ezéitteken –xáröa, dèitzen báizien–, ezéiteken lótua koitáz  
 (ohiko xumegarriak alde batera utzirik, aditzekin ere bustidurak agertzen dira maiz informatzaile honen ahoskeran, hauiek finko eta erabatekoak izan ez arren; lerro hauetan zehar ‘egitten/egit(t)en’

- moduko ahoskerak alde batetik, eta '(y)ittuen/(y)it(t)uen' gisako bestetik, aurkituko ditugu, adibidez)
- SA: pues... ardúa egítten ziének denbóra koitán...
- PP: írur-láur egún biár zutén iddórtzeko
- PP: pues péan zütén, dénak, oláxet...
- SA: egún bát edo bída igáre zütten  
(azken hiru esaldietan 'zuten' dugu, bi informatziale desberdinok emanik gainera; oroitarazten dugu ezen, 3.17 zk.ari egokitua orainaldiako kasuan, 'dute' gisako erantzunak Pedrok bakarrik eman zituela)
- PP: úr úra errékara xártzen ztélarik...  
(singularreko kasua izanik, adizkia 'zutelarik' en era laburtua izan daitekeen ustea dugu)
- 3-41 SA: a(b)ér bukáztzen tutánez... azálди ón...  
(*mukatzen* aditzen dela iruditzen zaigu; *azaldi on*, bestalde, 'azi-al-di on' delakoan gaude, mugatu gabe, esaldiko aditza pluralean bádago ere)
- 3-45 a PP: órduan... beár tuzu, altzínëan, bí remo
- 3-52 SA: kán biar túgu... bear túgu eútzi [almadiak], kán bear túgu lótú<sup>16</sup>
- 3-57 SA: Otságin, kórr ez tié kanbiátzen [festak]
- 3-61 SA: ník izánen nituén... ógei urte, zére nituén, exéri zelarík árgia  
('zera' itxaron zitekeen, behar bada)
- 3-68 PP: gazté? bah! báztituen... zomát? irútan ogèi urté...  
PP: agótzak ermàten ztuén airfák!  
PP: báztuén, gúre aiták... érián eta, (...) semenzéro errán tan korí  
(adizkia beharrik gabe pluralizatu zuen kasu honetan Pedrok)
- SA: pues, yá txikín... zitiélarik...
- 3-72 PP: almadíen ta, egitéko, zúrak bérar ginitúen, trabajátu  
(hona, aditz laguntzaileari dagokionez, adibide egokia, Zaraitzun barrena era hau, neurri handi batean, *gintzan* era desegokiak ordezkatu badu ere)
- SA: ardí ginuének –zomáitek baginuen árdi– barrérak, bá(t)zuk egíten ginuén  
(esaldi honetan Severok 'nor-nork' saileko adizkia bai, baina singularrean erabili zuen; hots, ustez pluralitzalea sartu nahi izan zueñean, arrestian aipatu ordezkapena –inguruko herrietan ere guztiz ohikoa dena, bestalde– baliatu zuen, hurrengo hiru adibideetan ikus daitekeen bezala)
- SA: ogíak egíten gintzán, bai
- SA: kònke... yá lagùntzen gintzán [almadiero kurak]
- SA: aráñak (= enarak)... déitzen gitzán gólondrína aiéndako<sup>17</sup>
- 3-77 SA: geró, zérekin? jarziárekin... lòtzen zítien; jarziára... urrútxez!
- SA: kan, egoztén baizitién... almádiak egíten báizitién yá...  
(aurreneko bi kasuotan laburbildu gabeko erak erabili zituen Severok)

<sup>16</sup> Esaldi honetako 'tugu' adizki laburbildu bezain errepiatua dela-eta, Orontzeko dotrinan agertzen den adibide bakarrean ere halakoxe era dugu: *bateatu eta becatu cometitu tugun gucien borraceco*.

<sup>17</sup> Severok azken hiru esaldietan desegokiro erabilitako 'gi(n)tzan' horrek Orontzeko dotrinan du isla, kasu honetarako agertzen den adibide bakarrean: *eta bateacracoaon* (= bateaz(e)rakoan) *cometitu-guinzan gucien borraceco*.

- SA: bí barréna èse ztién, eta... paló batzúk, onén... gorátarzúna
- SA: eta kán exèrtzen ztién, pues... zurák, trámo dèitzen bai-tzién...
- (aldi honetan, honen aurreko adibidean ez bezala, Severok bestelako pluralizazioa erabili zuen, balizko sandhi bati zor bide ez zaion; izan ere, zenbait datu-emaille, ‘hark hora’ kasurako, pluralean jakina, ‘tzuen’ eta ‘tzuen’ emanik baitaude –azken hau bokal baten ondotik badoa ere–, eta ‘hark haiak’ kasurako ‘tzien’ eta ‘tzien’, oraingo adibide hauetan bezala)
- PP: Ezkaró(t)ze, Eáurta... eta Otsagi; kór tzien atáderoak  
(aldi honetan, singularreko esaldietan ez bezala, oinarritzat ‘tie’ –eta ez ‘tute’– duen adizkia eman zuen Pedro)
- SA: indarráxi batzúk gaxtó, ezpaitzién... ezpáitzien píkatzen bátré

4) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork*):

4-01 → 4-24: *nor*, singul. 1. pertsona; 4-25 → 4-48: *nor*, plur. 1. pertsona

adizki-zk.

adibideak

4-01 adibiderik ez<sup>18</sup>

5) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork*):

5-01 → 5-24: *nor*, singul. 2. pertsona; 5-25 → 5-32: *nor*, plur. 2. pertsona

adizki-zk.

adibideak

5-01 adibiderik ez<sup>19</sup>

6) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*):

6-01 → 6-24: *nor*, singul. 3. pertsona; *nori*, singul. 1. pertsona

6-25 → 6-48: *nor*, plur. 3. pertsona; *nori*, singul. 1. pertsona

adizki-zk.

adibideak

6-21 SA: ta èrran zadaén: míra...

7) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*):

7-01 → 7-24: *nor*, singul. 3. pertsona; *nori*, plur. 1. pertsona

7-25 → 7-48: *nor*, plur. 3. pertsona; *nori*, plur. 1. pertsona

adizki-zk.

adibideak

7-01 adibiderik ez<sup>20</sup>

<sup>18</sup> Orontzeko dotrinan, baina, ‘gitu’, ‘gitie’ (orainaldian) eta ‘ginzan’ (iraganaldian) gisako adizkiak aurki daitezke. Hona adibideak: *certra diagò oblicacen guitu mandamentu cone? –4-28 zk.koan sailkatzeko modukoa–; gaizqui egindaucuyener eta agrabiatzen guitiener –4-33 zk.koan–, eta certaric salvatu guinzan? –4-40 zk.koan–, alegia.*

<sup>19</sup> Orontzeko dotrinan bada, halaber, sail honetan sailkatzeko moduko adizki bat, ‘zitu’ hain zuzen ere; hona adibidea: *arren luego baduzu aigurria (sic) zoinec guardaten baicitu*, 5-04 zk.koan sailkatzeko modukoa.

<sup>20</sup> Baino Orontzeko dotrinan baditugu kasu batzuk, hona adibide pare bat soilik ekarriko dugula: *Jesusristo (sic) eracusten daucunabezala (7-04 zk.) eta certaco eman zaucun Jaungoicoac memoria? (7-16 zk.)*.

		8) Aditz laguntzaile iragankorra ( <i>nor-nori-nork</i> ):
8-01	→ 8-24:	<i>nor</i> , singul. 3. pertsona; <i>nori</i> , singul. 2. pertsona
8-25	→ 8-48:	<i>nor</i> , plur. 3. pertsona; <i>nori</i> , singul. 2. pertsona
<u>adizki-zk.</u>		<u>adibideak</u>
8-01 a	PP:	Càrcastillo... errán, errán dauzut lén / erràen dáuzut, bai
		9) Aditz laguntzaile iragankorra ( <i>nor-nori-nork</i> ):
9-01	→ 9-08:	<i>nor</i> , singul. 3. pertsona; <i>nori</i> , plur. 2. pertsona
9-09	→ 9-16:	<i>nor</i> , plur. 3. pertsona; <i>nori</i> , plur. 2. pertsona
<u>adizki-zk.</u>		<u>adibideak</u>
9-02	SA:	Jáinkokoak (sic) dáuziela gaón (lehenago aipatu Eguberriko kantutik aterata; bertso-lerroak sub-juntibo-itxura du, azken hitza, jakina, ‘gau on’ dela)
		10) Aditz laguntzaile iragankorra ( <i>nor-nori-nork</i> ):
10-01	→ 10-40:	<i>nor</i> , singul. 3. pertsona; <i>nori</i> , singul. 3. pertsona
10-41	→ 10-80:	<i>nor</i> , plur. 3. pertsona; <i>nori</i> , singul. 3. pertsona
<u>adizki-zk.</u>		<u>adibideak</u>
10-17	SA:	[erri] txíkin bát eskúiala; nola déitzen dakoe?
10-21	SA:	iguál nola órai? (...) iguál xardòki nékon, e? ta, káu ere bái, kantátu nekon... <sup>21</sup> (galderetan erabili ohi den <i>nola</i> hitzak ‘bezala’ modala ordezkatzen du batuetan hizkera honetan, erronkarieraz ere gertatzen zen mo- duan; esaldi honetako aditzari dagokionez, bestalde, Espartzan eta Eaurtan <i>nakon</i> bildurik gaude XX. mendearren bukaera aldean, eta era hauxe bildu zen, halaber, azken herri horretan, XIX.ean ere)
		11) Aditz laguntzaile iragankorra ( <i>nor-nori-nork</i> ):
11-01	→ 11-40:	<i>nor</i> , singul. 3. pertsona; <i>nori</i> , plur. 3. pertsona
11-41	→ 11-80:	<i>nor</i> , plur. 3. pertsona; <i>nori</i> , plur. 3. pertsona
<u>adizki-zk.</u>		<u>adibideak</u>
11-01		adibiderik ez <sup>22</sup>

<sup>21</sup> ‘nekon’ hauek bitxi dira Zaraitzun –‘nakon’ aditu eta bildu baitugu beti, kasu honetan izan ezik– baina XIX. mendeko eskutitz batetan horren lekukotasuna agertzen da, *Zure Altezarari* (sic) *erraneconabezala* idatzi baitzion behin Eaurtako abadeak L.-L. Bonaparteri (Alzola Gerediaga: *Una carta de D. Pedro José Samper...*). Singularreko hirugarren pertsonan, baina, bada lekukotasunik: Orontze-ko dotrinan, adibidez, *bere propio virtutez iñorc lagunic eguiten cecola* irakur dezakegu, eta baita, Itza-llekoan, *cer errancecon?* moduko galdera ere.

<sup>22</sup> Orontzeko dotrinan *cala nola gac parcacen bai tauztegu guri zor guitiener* moduko esaldia irakur daiteke, 11-52 zk.rako egokia. Adizki hau dela eta, Eaurtan eta Espartzan *daztegu* bildu dugula esan beharrean gara –Eaurtan, XIX. mendeko inkestan (Bonaparte, *Études...*), *dauztegu* dugu, eta dotrinan, *bait-* kausa-menderagailuarekin, *baitauztegu*-. Beste herrietako dotrinetan, *bait-* delakoarekin beti ere, honako adibideak ditugu: Otsagikoan eta Itzallekoan *baitaztegu*, eta Igarikoan *baitrauztegu*.

## AHOZKO TESTUAK

Honen aurreko saio batzuetan egin dugun moduan, oraingo honetan ere, gure materialetatik zenbait esaldi atera eta era ordenatu batez sailkatu ondoaren, ahozko testu batzuk ekarriko ditugu hona. Haatik, Pedro Pena jaunaren jardunaz zerbait esan beharrari egoki irizten diogu: gure gizona inoiz, elkarritzetaren arian, zertxobait nahasi zenez, guk egin galderetako ustez ongi lotzen zaizkien zatiak, logikoenak eta ulergarrienak ere bestalde, aukeratu ditugu, era honetan testuak neurri batean ‘lastoz’ garbituz. Gure galderetan zaraitzuerara hurbiltzen saiatu baldin bagara ere, horrela jokatzean erabili izaniko hainbat laburdura eta bestelako ezaugarri ez dugu hemen sobera islatu nahi izan, gure ahaleginean zentzuzko neurri batetik haratago ez iragateko, nolabait esateko.

### Almadiero baten oroitzapenak (Pedro Pena, 1986)

- *Almadietan ebili zira?*
- Bai, axkí!
  - *kontaturen duzua? ongi kontatu, e? zonbat eta nolako tramoak ziren, nola lotzen ziren, zerekintzak, zer izen zien zurek... Errongarin aditurik bainago ‘séunes’, ‘dócenes’... eta kolako izen batzuk zitiela.*
- Dozén... kàtorzén y sezén; seis cuarenta, cinco sesenta y cuatro ochenta<sup>23</sup>.
  - *nola ebakitzen ziren arboleak, non ebakitzen ziren?*
- Aizkúraz geiénak... geyén-geyénak aizkúraz, eta lódiak, arbòle<sup>24</sup> lódiak, zerráz. ¿Esto... (magnetofòia dela-eta) recoge?
  - *bai; korrengatik ongi kontatu bear duzu...*
- ¡Este es un demonio! (barrez)
  - *aber: etxerik elki eta nora faten zintzan arbolen zerratu eta egoztera...*
- Etxéik elkí, ogéi... bah! ogeitá bat urté, ta... eltzèko tá ni... béti óianian! eta... lo que se trabajaba en el verano...
  - *bai, (euskarara ekarri nahiz) udan trabajatzen zena...*
- Todo trabajábamos nosotros mismos, todo, ¡preciosamente! mucho bien... poniendo mucho empeño también...
  - *baia zuk erran bear duzu: ‘elkitzen gintzan etsetik goizeko seietan, edo zazpietan, edo...’*
- Ez, ez... goiztárráö, góiztarráö...
  - *‘eta kolako lekuala fan, eta kan...’, konprenitzen duzu? aber: zer ordutan xeikitzen zintzan, noiz elkitzen etsetik...*
- Goizián... xéietán, séietan-zázpitán, xéi-zázp... goizáxka! béti goizárxa! ta lanián azkárki aitúz! baia azkárki gáitza! tórpe... ¿y ya graba todo esto?
  - *bai-bai-bai; eta nora faten...?*
